

TXORI KANTAZALE

Xabier Leteren ildoan



AURKEZPENA

Xabier Leteren (1944-2010) obrak interes literario, musikal eta kultural nabarmena dauka. Haren abestiak ezagunak dira, eta ohikoa da haien bertsioak egitea, mota bateko zein besteko musika taldeetan. *Txori Kantazalek* harago joan nahi izan du, ohiko birsorkuntzei buelta bat emanez: Otxoa de Alaiza - Gurrutxaga bikoteak pianorako obra bat sortu eta azalpen literarioekin osatu du, Leteren mundu poetiko eta musikaletik abiatuz. Proposamen honek Eusko Ikaskuntza – Laboral Kutxa Saria jaso zuen 2020an.

DISKO-LIBURUA

Xabier Leteren musikan oinarrituz bidaia intimo bat proposatzen du *Txori Kantazalek*. Batetik, piano musika duen disko bat aurkezten dugu; eta, bestetik, liburu bat, Leteren mundu poetikoari eta diskoko musikari buruzko testu bat eskaintzen duena.

Diskoari dagokionez, *Txori Kantazale* ez da ohiko bertsio disko bat, baizik eta Leteren unibertso poetiko eta musikalean inspiratutako *piano solo* lan bat. Musikaren inspirazio iturri gisa, hainbat alorretatik edan du Otxoa de Alaizak. Batetik, noski, Leteren melodien oihartzunak daude hainbat piezatan. Bestetik, ordea, Leteren obrarekin harremanetan dauden musikek ere badute tokia. Lau iturri aipa daitezke bigarren ildo honetan: beste musikari batzuen doinuak, herri kantutegia, musika klasikoa eta bertsolaritza. Iturri horiek guztiak fusionatzen dituen lana da *Txori Kantazale*. Otxoa de Alaizak moldaketa orijinal eta ausartak egin ditu, pianoaren baliabideak modu apartekoan baliatuz. Joxan Goikoetxeak kolaboratu du akordeoiarekin bi abestitan, eta Alex Gurrutxagaren ahotsa entzun liteke, errezitazio sotil gisa, hiruzpalau piezatan.

Testuari dagokionez, saiakera literario bat eskaintzen du Gurrutxagak. Leteren obrari buruzko ideiak dakartza bere testura, modu zorrotz bezain pertsonalean. Horrez gain, Otxoa de Alaizaren pianoak Leteren obrarekin ezarri duen elkarriketari ere begiratzen dio. Azken batean, bere hitzen bidez, elkarriketa konplexu bat osatzen da pianoaren, Leteren obraren eta gure munduaren artean.

Manu Urbietta artistaren lanak ditu disko-liburuak. Bereak dira liburuaren eta diskoaren azaleko irudiak, eta baita liburuaren barruko ilustrazioak ere (jatorrizko obren kalitatezko erreproduzio fotografikoak dira, Itziar Garaluzek eginak).

ZUZENEKO EMANALDIA

Otxoa de Alaiza - Gurrutxaga bikotea zuzeneko emanaldi bat eskaintzen ari da, Joxan Goikoetxea soinu-jotzailearen kolaborazioarekin.

Hitzez lagundutako piano kontzertu bat da, edo, bestela esanda, piano musikaz jantzitako kontakizun bat. Ordubeteko narrazio etengabe bat da emanaldiaren ardatza. Alde batetik, Leteren obran inspiratutako musikak, sorkuntza propioak eta melodia tradizionalak pianoaren zuri-beltzera eramaten ditu Otxoa de Alaizak. Gurrutxagak, berriz, kontaketa, errezitazioa eta abestia uztartzen ditu, entzulea Leteren mundu poetikoan zehar gidatuz.

Oroitzapena, umorea eta hunkidura ditu osagai *Txori Kantazalek*, eta enkontru atsegina eta intimo bat proposatzen die ikusleei.

Txori Kantazale Gasteizen (Santa Maria Katedrala eta Oihaneder) eta Bilbon izan da dagoeneko. Uztailaren 8an Astigarragan izango da (Erribera Kulturetxeko terrazan), eta uztailaren 15ean Getariako Elkano jatetxean (sarrera mugatua).

DISKO-LIBURUAREN FITXA TEKNIKOA

Egileak: Joana Otxoa de Alaiza Gracia (musika) – Alex Gurrutxaga Muxika (testua)

Izenburua: *TXORI KANTAZALE. Xabier Leteren ildoan*

Argitalpena: AZTARNA (2022) - AZ022

ISBN: 978-84-09-40601-2

Liburuaren orrialde kopurua: 56.

Prezioa: 20 euro

Musikaren edizioa, nahasketak, soinu-trataera eta masterizazio digitala: Juanan Ros – El Cantón de la Soledad Estudios.

Azalak eta ilustrazioak: Manu Urbietta

Diseinua eta maketazioa: Grafikoki

Testuaren orrazketa: Beatriz Zabalondo eta J. L. Aranguren ‘Txiliku’

Margolanen argazkiak eta egokitzea: Itziar Garaluze

Egileen erretratuak: Garazi Ugalde

EGILEAK

Joana Otxoa de Alaiza Gracia

Piano ikasketak egin zituen Musikene Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegian, eta 2011az geroztik Gasteizko Musika Kontserbatorioko irakaslea da. Ganbara-musikako masterra egin zuen Berlingo Arte Ederren Unibertsitatean, eta ahots laguntzan espezializatu da. Hainbat proiektutan parte hartu du piano-jotzaile laguntzaile eta ganbara-musikako pianista gisa.



Alexander Gurrutxaga Muxika



Literaturan doktorea da, eta aditua Xabier Leteren obran. Filologia eta literatura ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Trentoko Unibertsitatean. 2016tik EHUko irakasle eta ikertzailea da. Dibulgazio eremuan, literatur kritikari gisa kolaboratzen du, bai hitzaldi formatuan, baita argitalpen bidez ere.

KONTAKTUA

Telefona: 630 666 256

Helbide elektronikoa: txorikantazale@gmail.com

Helbidea: Aztarna, Latsunbeberri 10, behea. 20120, Hernani